

USTELKERIA ERRUMANIAN

Beste Gobernu bat hankaz
gora botatzeko prest
daude herritarrak

 **POLITIKA** / joseangel.oria@gaur8.info

Errumaniako gizarteak «nahikoa da» esan du berriz. Milaka herritar irten dira kalera protesta egitera azken asteotan, agintariak makina bat ustelkeria kasu barkatu egin nahi dituztela-eta. «Sozialdemokrata» izeneko politikariek ez diete jaramonik egin herritarrei eta bereari eutsi diote. Haserrea gero eta handiagoa da Balkanetako herrialdean.

Gauetz, argirik gabe askoz lasaia-
go ibiltzen baiti-
ra gaizkileak,
eta premia-
zko dekretu baten
bitartez, Parlamentuko «ikuski-
zun» ezerosoa saihesteko, joan
den asteartean onartu zuen
Errumaniako Gobernuak he-
rrialdeko kode penala aldatzea,
zenbait politikariri mesede egi-
teko, auzipetuta egotetik arazo
juridikorik gabe egotera pasa
baitira.

Agintariak bazekiten gaizki
egiten ari zirela eta horregatik
ez zuten kode penalaren aldake-
ta eguneko gai zerrendan sartu
ere egin. Baina XXI. mendeko
munduan gauzak ez dira hain
erraz estaltzen eta berehala mi-
laka lagun kalera irten ziren.
Protesta egitera, berriz ere. Go-
bernuaren egoitzaren aurrean
elkartu eta «dimisioa» exijitu
zuten asteartean bertan. «Lapu-
rrak» ere entzun zitekeen. Kaze-
tari batzuek esan zuten Gober-
nuko ministro batzuk egoitzatik

irten ezinik geratu zirela. He-
rrialdeko beste hirietan ere tan-
kerako egoera bizi izan zuten:
haserrea nagusi Cluj-Napocan,
Sibiun, Timisoaran eta Iasin.

Sorin Grindeanu lehen minis-
troaren Exekutiboak hilabete
darama lanean. Orain bi aste
proposatu zuen zenbait ustelke-
ria delitu despenalizatzea, seku-
lako manifestazioak eraginez.

Asteartean onartutako dekretu-
aren arabera, zenbait arau-
hauste despenalizatzeaz gain,
44.000 euro baino gehiagoko
kalteak eragin dituzten jauntxo-
keria kasuak baino ez dira kar-
telarekin zigortzen.

FIKZIOZKO LANPOSTUAK

Aldaketa horrek sekulako mese-
dea egiten dio Liviu Dragnea
PSD Alderdi Sozialdemokratako
buruari, asteartean bertan (de-
kretua onartu baino ordu bat-
zuk lehenago) fikziozko lanpos-
tuen inguruko auzi bat dela-eta
epaileen aurrean deklaratzera
joan behar izan zuen politika-
rari. Fiskalen arabera kasu ho-
rretan egindako kaltea 24.000
euro ingurukoa denez, Dragne-
ak ez dauka kezkatu beharrik,
epaileei dagokienez behintzat.

Dekretuak eragindako eskand-
alua ezkutatu edo murriztu
nahian, premia-
zko dekretu bi-
dez onartzekoa zen beste neurri
bat (bost urteko kartzela zigorra
baino txikiagoa duten 2.500
presorik indultua ematea) Parla-
mentura bidali du Gobernuak.

Grindeanuren Exekutiboak ez
die jaramonik egin ez kalera ir-
ten diren manifestariei, ez Us-
telkeriaren Aurkako Fiskaltzari,
ez Magistratura Kontseiluari,
instituzio horiek ere ustelkeria
barkatzearen aurka baitaude.
Aurkako jarrera agertu du Klaus
Iohannis Errumaniako presi-
denteak berak ere: «Dolu Eguna
da gaurkoa Zuzenbide Estatua-
rentzat, Justiziaren aurkakoek
emandako kolpe gogorra jasan
behar izan du-eta», adierazi
zuen politikari eskuindarrak be-
rria ezagutu bezain pronto.

Joan den igandean erruma-
niar asko, 100.000 inguru heda-
bidean arabera, irten ziren pro-
testa egitera, kasu askotan
Errumaniako bandera hartuta.

Begiraleek diote Nicolae Ceau-
sescuren Gobernu 1989an erori
zenetik herrialdean egin diren
manifestaziorik jendetsuenak
izan zirela igandekoak.

PSD alderdiak lortu du nahi
zuen baina arrazoi ugari ditu
keztatuta egoteko. Egia da aben-
duko hauteskundeetan erraz
irabazi zuela, botoen %45 jasota
(horrenbesteko proportzio-
rik ez zuten lehen inoiz eskuratu), bai-
na ez luke ahaztu behar errold-
an ageri diren herritarren %39
baino ez zirela joan botoa ema-
tera. Beraz, beste %61 dago hau-
teslekuetara ez joatea erabaki
zuen, politikari guztiak gauza
bera direlakoan. Munduko beste
leku askotan gertatzen ari den
moduan, egungo alderdiek he-
rritarren konfiantza erabat gal-
du dute; Errumaniaren kasuan,
batez ere ustelkeriaren eraginez.

Botoa ematera ez joatea era-
bakitzen duten herritar horiek
ez daude edozein gauza onartze-
ko prest, egunotako mobiliza-
zioetan ikusten den moduan.
Beraz, PSDkoek gaizki egingo lu-
kete abenduko arrakasta horri
garrantzia gehiegi eman eta he-
rritarren artean hain hedatuta
dagoen haserrea kontuan hartu-
ko ez balute.

COLECTIV KLUBA

PSDren aurreko Gobernuaren
gainbehera (Victor Pontarena)
manifestariak eragin zuten, Co-
lectiv klubean gertatutako tra-
gediaren ondoren (30 lagun in-
guru hil ziren gertaera hartan,
eta beste horrenbeste hurrengo
asteetan, erietxean infektatu
ondoren). Ikerketa batek agerian
utzi zuen dantzatokiak ez zuela
baimen ofizialik eta ez zituela
betetzen suteen aurkako arauak,
baina agintariak beste aldera be-
giratzen zuten, eskupekoak jaso
ondoren, eta lokala zabalik ze-
goen. Erietxean dozenaka zauri-
tu hil izanak ere herritar asko
haserretu zituen, osasun siste-
mak dituen gabeziak nabarmen
geratu baitziren. Ustelkeriaren
beste aurpegi bat.

Aro komunistako funtziona-
rio eta pertsona ezagun askok
bat egin zuten PSDrekin, Ceau-
sescuren erorketaren ondoren.
Horregatik hasiera-hasieratik

Polizia bat Gobernuaren
egoitzara sartu nahi zuten
manifestariei espraia
botatzen, joan den
asteartean.
Daniel MIHAILESCU | AFP



indar handia izan du nekazari-tza eremuetan (Errumaniako populazioaren %45 bertan bizi da).

Gainera, Europako alderdi sozialdemokrata gehienek egin dutenaren aurka, PSDk Bruselatik zetozen austeritate neurrien aurkako jarrera izan du urteotan: soldata igoerak eta gastu sozial gehiago agindu zituen. Horrela lortu zuen 2012an Gobernura iristea. 2009tik 2011ra aurreko Exekutiboak abian jarritako erabakiak bertan behera utzi eta herritar askori sekulako mesedea egin zion. Indarra herri txikietan bakarrik izatetik, hirietan ere indartzera pasa zen.

BI AURPEGIKO ESTRATEGIA

Aldi berean, Pontaren garaian, enpresariak gustuko dituzten gauzak erabaki zituen Gobernuak (zergak murriztu eta diru laguntzak eman konpainiei, eta langileak doan kaleratzea ahalbidetzen duen legedia ukitu gabe utzi), inbertsioak erakartzeko asmoarekin.

Florin Poenaru soziologoak Criticatac.ro webgunean nabarmendu du bi aurpegiko estrategia erabili izan duela PSDk gizarteko eremu zabaletara iristeko. Alde batetik, «herrita-

rrak erakartzeko, zentro-ekzekreko neurriak agindu, eta, aldi berean, enpresarien eta kapitalaren babesa eskuratzeko, zentro-eskuineko politikak garatu».

«Hungariako Fidesz eta Poloniako PiS alderdiekin alderaketa egitera animatzen duen arrakastazko errezeta izan da. Gainera,

«Justizia, ez ustelkeria»,
dio goiko irudiko
emakumearen txartelak.
Manifestariak festa
giroan ibili dira eta
batzuek 1989ko
mobilizazioak ekarri
dituzte gogora.
Matthew CAVANAUGH | EFE

estrategia horrek oztopatu zuen eskuin muturreko indarrek beren burua antolatu eta hauteskundeetan gora egitea», Poenaruren irakurketaren arabera.

Baina ez da inolaz ere ahaztu behar PSDren arrakasta horrek oinarri ahulak dituela, askoz ere herritar gehiago geratu baitzi-

ren botoa ematera joan gabe, joan zirenak baino. Herritar gehientzat ez dira fidatzekoak ez sozialdemokratak ez beren buruak eskuinerago kokatzen dituzten liberal eta kontserbadoreak. Ez da harritzekoa, aurreko legealdian, 2012ko bozketetan, aukeratu zituzten 588 diputatuaren %15 ustelkeriarekin lotutako kasuengatik ikertzen ari baitziren, edo zigortuta zeuden.

DNA Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltzak emandako datuen arabera, 2010az geroztik, 3.000tik gora ministro, senatari, diputatu, alkate eta goi kargu espetxeratu dituzte herrialdean ustelkeriarekin zerikusia zuten kasuengatik. Gainera, herritar askok txalotzen du DNaren lana eta horri esker, inkesten arabera, Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltza da gehien maite duten instituzioa.

«Instituzio-izaera hartua du dagoeneko ustelkeriak. Horregatik, lapurtutakoa oso kopuru handia bada eta hedabideek aipatzen badute, eskandalua sortuko da; baina herrietan ez, herritar asko ustelkeriarekin nahastuta daudelako edo saihestezina iruditzen zaielako», dio hiriburuko ikasle batek.

